

Aretxa gazeta

Aretxabaleta • 1996ko maiatzak 23 • 99.zka. •



Udalekuetarako begiraleei deialdia

Espediziokoak etxean

Gorriña baino bizkorrago

Aretxabaletako Talde Antimilitarista

**Ekainaren
30era arteko
epea duzu
deitzeko,
eta bizitza osoa
damutzeko egiten
ez baduzu.**



Telebanka

Orain, edozein kontsulta edo eragiketa Telebankaren 901-333 444 telefonora deitzeagatik, kotxe bat edo harigabeko telefono bat lortu ahal izango duzu. Deitzen duzun bakoitzeko, **Fiat Cinquecento 1en eta Harigabeko 50 Telefonoren** zozketan parte hartzeko aukera bat izango duzu. Zenbat eta gehiagotan deitu, aukera gehiago izango duzu irabazteko. Oraindik txartel pertsonalaren jabe ez bazara, 901-333 444 telefono bidez ere eska dezakezu.



+

50



Dei ezazu oraintxe bertan, eta zerbitzu hau oso erabilterreza eta baliagarria, eta pertsonala oso abegikorra eta profesionala dela konturatuko zara.



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**



Zer iritzi duzu Aizkorriera egindako joan-etorriaz?


Nekane Isasmendi
(Langabetua)

Ondo iruditzen zait horrelako gauzak antolatzea. Hurrengo urteetan ere antolatuko balitz gustatuko litzaidake. Etxafle-ruak bota zituztelako jakin izan nuen bueltaren berri.




Julian Mendizabal
(Jubilatua)

Ez daukat horren inguruko berririk. Gorriña bera ere ez nuen nik ezagutu.



Migel Perez
(Langile)

Berez ekintza polita da eta herriari bizitasuna ematen dio. Baina uste dut 1931. urtean Gorriñak egin zuenaz ez dagoela konparatzerik.



Nerea Antxia
(Langabetua)

Buelta hori astakeria bat dela iruditzen zait. Baina bestalde ondo dago kirolaren inguruan gauza desberdinak eta berriak antolatzea.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultur sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria



ESKUTITZAK

KATEKISTEN LANA

Umeak atsegin izateak eta barne fedea, haurrei katekesia irakastera bultzatu ninduten orain dela hamar urte.

Lana ondo egiteko, 35 katekista apaizarekin biltzen gara hilean behin. Apaizak zer eta zelan irakatsi azaltzen digu, eta ondoren, norberak bere kontura eskolak prestatzen ditu.

Sei urterekin hasten dira umeak katekesisera etortzen eta bederatzirekin jaunartzea egiten dute. Lehenengo bi urteetan haurra kristau ikuspegitik hezitzen saiatzen gara, eta hirugarren urtean jaunartzea egiteko prestatzen ditugu. Jaunartzea egin ondoren, gainera, nahi duenak aukera dauka beste hiru urtez kristau fedean sakonduz joateko. Izan ere, jaunartzea egiteak ez du amaiera bat esan nahi.

Katekistok egiten dugun lana garrantzitsua den arren, ezin ahaztu familiaren zeregina ere. Prestaketa egokiena familiak eman dezake, eta familiaren ardura ere bada haurra ikuspegi kristau batetik hezitzea.

Umeak pozik etortzen dira katekesira eta gure helburua norberak sentitzen duen fedea haurrei erakustea da. Fedea oso garrantzitsua da pertsonaren heziketarako; matematika edo historia ikastea bezain garrantzitsua.

Bukatzeo, kontsumismoan murgilduta gauden egun hauetan, garbi utzi nahiko nuke jaunartzeak ez duela dirua gastatzea esanahi. Gizakiaren bizitzan pausu haundi eta garrantzitsu bat ematea da jaunartzea eta dirua gastatzeak ez du esanahi pausu hori haundiagoa izango denik. Umea pozik sentitu behar da Jaungoikoaren aurrean hartu duen konpromezuagatik.

Karmele Unzueta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Josu Urkia. **Erredakzio-kontseilua:** Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantza Abasolo, Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Ana Eriz. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Loramendi K.E., Udala, Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Gorka Etxabe, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster. **Inprimategia:** Eguzkigrif. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. Aretxagazeta ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Aurten ere Ortzadarrek antolatuko ditu udaleku irekiak

Udaleku irekietarako begiraleei deialdia

Aurtengo uztaileko ere Ortzadar Atsedean taldeak umeentzako Udaleku Irekiak antolatuko ditu. Hori dela eta, uztailean zehar begirale moduan aritu gura dutenentzat deialdia zabaltzen du. Aurtengo udaleku irekiei uztailearen lehen emango zaie hasiera, 19an bukatzeko.

Udalekuetan begirale moduan parte hartu ahal izateko honako baldintzak bete behar dira: 18 urtetik gorako gaztea izatea, uztaile libre izatea eta euskeraz jakitea. Begirale kopurua ekainaren bukaerara ez da zehaztuko, zenbat umek parte hartuko duten jakin arte hain zuzen ere. Begiraleez gain, koordinatzaile lanak egingo dituen lagun bat ere behar da. Azken hau mundu honetan esperientzia duen pertsona bat izan behar da.

Izena emateko epea ekainaren 3an hasi eta 14an bukatuko da. Horretarako Ortzadarreko lokalera deitu edo bertara joan behar da eta bertan egin beharrekoa azalduko da. Gogoratu Ortzadar Atsedean taldearen helbidea Herriko Plaza 1, 2. solairua dela. Telefonoa: 79 01 84. Ordutegia arratsaldeko 5etatik 8etara.

Oroitzapen zaharrak bildu ziren Almenen



Kiroldegiari Juan Ramon Arana izena eman zitzaion momentua

Marianistak Eskoriatzara etorri zireneko 100. urteurrenaren ospakizunak momentu hunkigarriak bizi izan zituen pasatu den astebukaeran Eskoriatzan. Espainiako leku desberdinetatik etorritako 60 bat marianistek elkar ikusteko aukera izan zuten. Aurpegi ezagunak, hoiaren artean, Txomin Madinabeitia, Agustin Pujana, Xabier Zubero, Hermenegildo Etxebarria, Ebaristo Larrañaga, Jose Mari Egiluz eta beste asko. Eta ez hori bakarrik, lehenago ikasle izandakoak ere bertan elkartu ziren.

Eskoriatzako kanposantutaren bedeinkapena, Goro-sarri abesbatzak alaitutako meza, oroitzapen zaharrak gogora ekarriz emandako hitzaldiak eta luntx-ak bete zuten zapatuko ekitaldia.

100 urte hauetan 59 marianista lurperatu zituzten Eskoriatzako kanposantuan eta orain hilobi bat daukate bertan.

Hitzaldiari dagokionez, Xabier Barrutietak, Ambrosio Bergaretxek eta Jose Mari Larrañagak oroitzapen desber-

dinak gogora ekarri zituzten.

Domekan kirol ekintzek hartu zuten lekua. Animazio handia sortu zuten jokatu ziren partidu desberdinek. Almen, Donostiako eta Gasteizko marianisten eskolen artekoa, guraso eta ikasle ohien artekoa. Bukatzeko, Juan Ramon Aranari omenaldia egin zitzaion.

Momentu hunkigarriak

Eskoriatzako elizan ospatu zen meza, Ambrosio Bergaretxek bere txikitako kontu eta esperientziak kontatuz bota zuen hitzaldia eta Almeneko kiroldegiari Juan Ramon Arana izena jarri zitzaion momentua izan ziren zirrara haundiena sortu zuten momentuak. Hemendik aurrera kiroldegiak Juan Ramon Arana izena izango du.

Dana dala, horrenbeste marianista eta lagun bildu izateak astebukaera osoari bizitasun berezia eman zion eta marianistek bihotzez eskertu zuten egindako omenaldia.

Nekatuta baina pozik etxeratzean

Kathmandu, Londres, Sondika eta Aretxabaleta ia egun eta erdi bidaiari egin ondoren nekatuta baina pozik itzuli ziren astelehenean Kangchenjungako espediziokideak. Murruxoko lokal aurrekaldea lagunez bete zen Kike de Pablo, Juanito Oiarzabal eta Alberto eta Felix Iñurrategiri ongi etorri beroa emateko.

Dantzariak, Pako Iriondo eta espedizioko kideen berbek bete zuten ekitaldia. Bukatzean umeez ez zuten autografoak eskatzeko aukerarik galdu eta lau mendigoizaleak hantxe aritu ziren firmak bota eta bota.

Espedizio gogorra baina laukote egokia

Bi gauza komentatzen dituzte mendigoizaleek espedizio honen inguruan. Kangchenjunga mendia oso exigentea izan dela, gogorra eta osasun aldetik oso gaizki ibili direla. Alberto izan zen espediziotik gaixotu ez zen bakarra. Bestetik, orain 2 urte K2ra joan zirenean moduan laukote egokia osatu dutela azpimarratzen zuten. "Oso ondo konpondu gara.



Kike de Pablo, Alberto eta Felix Iñurrategi eta Juanito Oiarzabal ongi etorrian

Ekipo haundia osatzen dugu, 2 beterano eta 2 gazteren artean". Azaltzen zuen Juanito Oiarzabalek. Hala ta ere, ezin ahaztu Oiarzabalek gorrriak pasa zituela tontorra egin eta beherakoan. "Ez dut horrelako esperientzia gogorrik beste 8.000ko guztietan izan. 8.500 metrotan lipotimia bat jasan nuen. Felix eta Albertoren laguntza eta animoei esker jeitsi nintzen".

Kike de Pablok ez zuen gailurra lortu. "Behatzak izoztuta nituen eta eguraldia ere kaskar samarra zegoen. 8.200 metrora bueltatzea era-

baki nuen. Orain ordea, ondo nago sasoi aldetik". Baina pasatako estu unekak pasa eta gero garrantzitsuena denak osterata etxean egotea. "Mendia gogorra izan da, baina



orain etxean gaude eta garrantzitsuena lagun haundiak izaten jarraitzen duguna da".

Proiektu desberdinak

Ia hiru hilabete elkarrekin egon ondoren bakoitzak bere bidari ebatu beharko dio orain. "Bakoitzak gure proiektuak ditugu eta datorren urtean zeozer izango da". Azaltzen zuen Felixek. "Oraindik behintzat ez dugu ezer zehaztu".

Juanitok osterata baditu proiektu desberdinak. Datorren urtean, urtarrilean Antartidara, udaberrian Shisha Pangma eta udan Hidden Peak egiteko asmoa du. Horrela 2000. urterako pentsatuta duen moduan 14tik 11 8.000ko eginak izango lituzke.

Baina orain denek asmo berdina dute, deskantzatu eta hemengo mendietan disfrutatu. "Atxarteko harrietan gora igotzeko gogoa daukat". Azaltzen zuen Kikek. Albertok ere antzeko zerbait adierazten zuen: "uzten badidate behintzat deskantzatu egingo dut eta bizikletan eta inguruko mendietan lasai-lasai ibili".

GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta

Izozkiteki-Gozotegia IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABAleta

LEIBAR ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABAleta



Santa Ritaren taila Santillana del Mareko klaratarren artean berritua eta txukundua izan da

Santa Ritaren eguna

jasotzea. Ez da, ez, inor etxera itzultzen Sata Rita eguneko larrosarik gabe. Aldez aurretik bederatiurrenean jendeak gogoz parte hartu du.

Aurten, gainera, besteetan baino dotoreago eta apainago aurki dezakegu. Denbora dextente igaro du Santa Ritaren tailak Santillana del Mar-eko klaratarren artean berritua eta txukundua izan zedin. Emaizta: ezin hobea!

“Santa Rita zeruan dugu bitarteko ezinezko egunak datozenerako”

Honela dio maiatzaren 22an Santa Ritaren jai eguneko abestiak. Santa Rita Agustindarren Ordenako monja izan zen XV. mendean, Italiako herritxo bateko monastegian, Casia-n hain zuzen.

Klausurako monastegi batean, isiltasunean, otoitzean eta lan apaletan igaro zen bere bizitza. Ez zuen liburu potolorik idatzi, ez eta mirari haundirik egin. Zein da, bada, hain herrikoi eta maitagarri egin duen sekretua? Erabateko eta betirako aukera bat egin zuen bere bizitzako momentu latz batean: beti maitatu eta barkatu.

Gure herrian hortxe aurki dezakegu bere irudia Agustindarren Monastegian. Jaiera edo debozio berezia diote emakume honi Aretxabaletan eta baita inguruko herrietan. Egun horretan, otoitza eginez gain badago beste berezitasun bat: bedeinkatutako larrosa

Ikastetxean ekintzak

Bestalde herriko agustindarren ikastetxeak izena du “SANTA RITA” Haur Eskola. Beraz, bertan dabiltzen haurrek ere ospatzen dute ikastetxeko jaia edo eguna. Jai hau egun bat lehenago izaten da, 21ean.

Egun bete-betea izaten dute. Goizean Santa Rita agurtu ondoren jolas desberdinetan parte hartzen dute: jokuak, marrazki lehiaketa, musika, dantza.... Arratsaldean, berriz, pertsonai berezi baten bisita izaten dute: buruhaundia edo ipotxa edo sorgina... Urtero desberdina. Nahiko korri eta jolastu ondoren, galdutako indarrak berritzeko eta egunari amaiera eman aurretik, mahaiaren inguruan esertzen dira merienda eder bat dastatzeko.

Egun honetan pozik jasoko ditu Santa Ritak bere ikastetxeko haurrek eta gainontzeko gizon emakume guztiak zuzendutako otoitzak eta abestiak. Ziur entzunak izango direla!

ETBko mezak Aretxabaletatik

Datozen hiru domeketan, hau da, maiatzaren 26an eta ekainaren 2 eta 9an ETBk Aretxabaletatik zuzendutako mezak botako ditu goizeko 9,30etan. Grabaketak egun bat aurretik egingo dira, hau da maiatzaren 25ean, Pentekostes egunez, ekainaren 1ean Trinitate egunez eta ekainaren 8an Korpus egunez. Grabaketak arratsaldeko 7,30etako mezetan egingo dira. Ekainaren 2an botako duten elizkizunean 10 minututako erreportaia botako dute auzoetako elizaurre batzuk eta Agustindarren monastegiaren inguruan.

Erromesaldia Lurdesera

Pasatu den astebukaeran Elizbarrutiak antolatuta erromesaldia egon zen Lurdesera. Batzuk astebukaera osoa pasatzera joan baziren ere, gehienak zapatuan egin zuten joan-etorria. Bi autobuskadak irten zuten gure herritik. Lurdesen Gipuzkoa osotik eta munduko beste hainbat lekutatik joandako jendea zegoen.

BEIRALAN

KRISTALDEGIA
 Loramendi 10 ☎ 79 81 78
 Aretxabaleta

GARBITU S. KOOP
Garbiketa orokorrak
 Errekabarren 3- Behea
 Tfnoa: 79 01 28

JOSU HARATEGIA
 Urdaitegia-Gozotegia
 Kroasantegia
 “Janari prestatuak”
 Mitarte, 1 ☎ 77 03 08
 ARETXABALETA

PINESOS SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY
 Laborantza tresnak
 Ongarriak- Haziak
 Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33
 Etxekoa: 79 42 56

Andramaixetako kartel lehiaketa

Aurten ere Andramaixetako jai egitaraua iragarriko duen kartel lehiaketa antolatuko du kultura batzordeak. Dagoeneko aterata daude oinarriak eta ondorengo hauek dira:

Lehiaketa honetan edozein atxabaltarrek parte hartu dezake eta teknika librea izango da. Kartelaren neurriari dagokionez 50x70 zmtakoa izan beharko da eta derrigorrez ondorengo testua izan beharko du:

ANDRA MARI JAIK 96
ABUZTUAK 14, 15, 16 ETA 17

ARETXABALETA

Sariak ondorengoak izango dira:

1go saria 25.000 pezeta eta plaka bat; 2.a 15.000 pezeta eta 3.a 5.000 pezeta.

Kartelak egilearen nor-tasuna azaldu barik aurkeztuko da, datuak sobre itxi batean aurkeztuz. Ekainaren

Andra Mari Jaiak • 95



Iazko lehiaketako kartel irabazlea

21a baino lehenago kultur etxera bidali beharko dira eta kartel aukeratua zein den uztailaren 7an emango da jakitera. Epaimahaia kultura batzordearekin batera herriko hainbat lagunek osatuko dute. Egoki ikusten bada, aurkeztutako karteekin erakusketa bat egingo da.

Adinekoentzat 3 egunetako egonaldiak Donostian

Foru Aldundiko Gizartekintzak, Zerbitzu Sozialetako Departamentuak, 65 urtetik gorako gipuzkoar guztientzat Donostian 3 egunetako egonaldia antolatu du. Programa, kultur ekintza desberdinez betetzen da, horien artean Iparraldeko kostaldera bisita.

Arrasate, Bergara, Oñati, Eskoriatza, Aretxabaleta, Leintz-Gatzaga, Elgeta eta Antzuolan bizi direnentzat lehendabiziko txanda datorren maiatzaren 27, 28 eta 29an hasiko da eta bigarrena, ekainaren, 3, 4 eta 5ean. Izena ematea Arrasateko Eroski bidaien bulegoan egin daiteke eta dagoeneko zabalik dago epea. Edozein argibidetarako telefonoa: 900-43 43 43

Pelikula proiektzioak maiatzean bukatu

Maiatzaren bukaeran zineko proiektzioak bukatuko dira. Hemendik eta udazkenera bitartean "Sentido y sensibilidad" izango da Zaraia zinemaren botako den azken pelikula.

Udaberrian eta udan zinera joateko ohitura txikiagoa dela eta Ansoalde enpresak proiektzioekin bukatzea pentsatu du. Hori dela eta, udazken aldera hasiko dira osterako zineko proiektzioak.

Bestalde, orain artean zineak ez du estimazio handiegirik izan gure herrian. Hala ta be, pelikula takileroenak "El día de la bestia" eta umeentzako "Liberad a Willy 2" izan dira.

ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 79 75 42
- MARI KARMEN ZAPATA DENDA 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINKETA 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 79 96 43



Mitartegarai
Jatetxea

- Nekazaliturismo etxea
- Bertako sukaldaritza

Arientza auzoa • Tfnoa: 79 17 51
ARETXABALETA



URBALTZ

TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

Loramendi Elkartea: Barazki eta fruituz osatutako kartelak euskaraz

Loramendi Euskara Elkarteko sensibilizazio taldeak merkataritza munduko bi kartel ateratu ditu. Kartel horietan 53 barazki eta fruituz osatutako marrazki bilduma agertzen da. Horietako marrazki bakoitzak bere euskerazko izena eta komentario txiki bat dakar. Merkataritza munduan euskeraren presentzia gehitu gura da kartel hauen bitartez eta horretarako bailarako merkatal denda eta eskoletan banatzeko asmoa du Loramendi Euskara Elkartea. Bestalde, norbaitek kartel horiek erosi gura izango balitu liburu dendetan edo Loramendi elkarteetan bertan egongo dira salgai 500 pezetan.

Loramendi Elkartearen ahotan azken bi urteetan ibili den ideia izan da hau, eta poliki-poliki osatuz etorri dena. Izan ere, horrelako kartelak ateratzeak lan handia dauka atzean.

Mikel Garmendia artista

Mikel Garmendia atxabaltarra da kartel horietan argertzen diren barazki eta fruituak marraztu dituena. Orain dela 2 urte hasi zen marrazkiok egiten, eta pasientzia guztiz koloretako lapitzez margotu ditu guztiak.



Mikel Garmendiak marraztu ditu karteleko fruituak

Fruta eta barazki bakoitza banaka-banaka hartu, bi argi fokoren erdian jarri eta margotu. Bakoitza margotzeko 2 orditik gora behar izan ditu. "Barazki batzukin komeriak ere izan nituen, -azaltzen zuen- letxuga marrazten ari nintzela esaterako argien fokoekin usteldu egin zitzaidan eta beste bat hartu behar izan nuen. Gainera barazki eta fruitu onenak bilatzen aritu naiz gero marrazkia ere ahalik eta ondoen egiteko". Horrez gain, zera gehitzen zuen: "Fruitu bakoitza urteko sasoi batekoa da eta horregatik urte guztia behar da horrelako lan bat egiteko".

Apirileko odol emaileen emaitzak

Apirilaren 1, 9 eta 15ean odol donazioak egin ziren

Aretxabaletan. Gure herrian dauden odol emaileen kopurua handia dela esan behar da. Hiru egun hauetan 8 odol emaile barri izan ziren.

Apirilaren 1ean, odol emaile kopurua 41ekoa izan zen. Ez zen odol emaile barririk aurkeztu baina 5 lagunek arrazoi bategatik ala besteगतik ezin izan zuten odolik eman.

Apirilaren 9an, 46 odol emaile izan ziren. Hoietatik 5 barriak eta 4 lagunek ezin izan zuten euren odola eman.

Apirilaren 15ean barriz, 33 odol-emale; horietatik 3 barriak eta 5 lagun odolik eman ezin zutenak.

TXAKOLI

a - Pintxoak
b - Kazuelak
e - Pulpo espezialitatea
r
n Andra Mari Auzunea
a Tfnoa: 79 02 25
ARETXABAETA

DON

Pelikularik
hoberenak

Lezama Merkatal zentrua
ARETXABAETA

BIDEO




AZKENA TABERNA

Solohaundi, 8 ☎ 79 74 57



GARAGE NORTE S.L.

Zerbitzu Ofiziala
Basabe Poligonoa, A-1-3
Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86
ARETXABAETA



Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Aretxabaleta

INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK



Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 96 66
Fax: 77 10 33



IBARRA

ESTANKOA

Tabakoa eta
ikasmateriala
Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

LASA AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 79 29 26
ARETXABAleta

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektragailuak
Elektra-instalakuntzak
Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10



Lurrindegia
Opari-denda

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

Lumaz bete da Urkulu (II)


Azkenengo Aretxagazetan, Urkulun dauden hainbat hegazti akuatiko ikusi genituen. Baina gure urtegian dauden hegazti guztiak ez dira urtarrak. Txori kantariak ere, esate baterako, ugari ditugu, hala nola, amilotxa, txorrua, kaskabeltzak, karnaba (jilgeroa), pitxartxarrak, txantxangorria, txinboa, txirriskila, txonta,...

KASKABELTZA (*Parus major*)

Gaztelaraz: Carbonero común
Luzera: 14 zm Pisua: 20 gr.



Parido guztiak bezala, kaskabeltza kolore ugari duen txoria dugu. Bularra horia du, bizkarra iluna eta buru beltzean masaila zuriak nabari zaizkio. Har-jale asegabea denez, landaketak dituzten baserriarren artean txori oso estimatua da. Pinu-kaskabeltza, tximutx-kaskabeltza eta amilotxa bere familikoak dira.



TXINBO KASKABELTZA (*Sylvia atricapilla*)

Gaztelaraz: Curruca capirotada
Luzera: 14 zm Pisua: 16 gr.



Lumaia marroi-gris apala duen txoria dugu txinboa. Buruan duen kasko beltzak ematen dio izena, emearen kasuan kaskoa gorria bada ere. Zuhaiixken adarretan saltoka ibili ohi da intsektu bila. Txinbo kaskabeltza espezie sedentarioa dugu Euskal Herriko bazterretan.




TXONTA (*Fringilla coelebs*)

Gaztelaraz: Pinzón vulgar
Luzera: 14 zm Pisua: 20 gr.



Lumaia gorrixka du, burugaina urdina eta hegoak beltzak badira ere, mantxa zuriak dauzkate. Txori polit hau sarritan ikusiko duzue bide ertzetan dauden loreen haziak jaten. Bere kumeak aldiz ez ditu lore-haziz elikatzen, intsektuez baino, kumeek proteinen beharra dute eta hazteko.



PITXARTXAR KASKABELTZA (*Saxicola torquata*)


Gaztelaraz: Tarabilla común
Luzera: 12,5 zm Pisua: 16 gr.



Urkulun dagoen txoririk konfiatuena izango da. Bularraldea gorria du, atzekaldea zuria eta hegoak, bizkarra eta burua beltz-beltzak ditu. Oso nabarmena da bere koilar zuria ere. Landare baten puntan edo kable gainean jarri eta lasai kantatzen aritzen zaigu. Pitxartxar kaskabeltza ere intsektujalea da.



✍ Mikel Arroiabe



Euskararen Eguna


Eguraldi kaxkarra baina hala ta be giro bikaina egon zen Euskararen egunean. Ekintzak eta ikuskizunak nonahi eta aspertzeko denborarik ez zuten izan egun honetan kalera hurbildu zirenek, ikusi-ikusi bestela argazkietan.



Sartu ete zuen Alexek baloia saskian?



Otala Zelai Eguna



Erdi bildurtuta pasatu zuten eguna Otalazelaira hurbildu zirenek. "Aguantatuko ete du eguraldiak" zen lagun askoren ahotan zebilen esaldi majikoa. Eta azkenean... haize hotza egin arren euri tantarik ez. Eskerrak!

Urteroko moduan, Gorriti han egon zen bere animaliekin, baita Loramendiko dantza taldeko dantzarien saioa ere. Bapo bazkaldu zuten bertara hurbildu ziren gehienek. A zelako banketea. Giroa argazkietan duzue.



Aretxabaletako talde antimilitarista: “Intsumisoak Aurrera, Militararak Atzera” lemapean borrokan

Gizarte antimilitarista bat dute amets eta berau lortu arte tinko eutsiko diotela diote. Helburu honekin sortu zen Aretxabaletako Talde Antimilitarista orain dela urte eta erdi.

Hogei bat neskamutilez osaturiko talde honek, zer esan ugari emango du guztioi dagokigun gatazka hau behingoz konpontzeko.



Aretxabaletako Talde Antimilitarista euren lokalean lanean

Aretxabaletako lehen intsumisoen epaiketeekin batera hasi zen talde antimilitarista bat sortzeko asmoa. Lehenengo bilerak udaletzeko ganbaran egin ziren, bertan gai honen inguruan interesatuta zeuden atxabaltarrak biltzen zirelarik zenbait proposamen eta iritzi aztertzeko. Gerora, ildo beretik jarraituz eta talde moduan formalizatu nahian 20 bat neskamutil elkartu ziren ARETXABALETAKO TALDE ANTIMILITARISTA sortuaz.

Kontu hauek urte eta erdi dala gertaturikoak dira. Gaur, beraien bilerekin jarraitzen dute: ekintza berriak prestatuz, informazioa bilduz gero denon eskutan jartzeko...

Jakina denez, Aretxabaletan bertan eta inguruko herrietan intsumiso kopurua gehituz joan da azkenengo bolada honetan. Honen arrazoi garrantzitsuenetariko bat, dudamudan dagoen jende askori, talde antimilitaristek azken erabaki hori hartzeko emandako bultzakada hortan egon daiteke.

“Norberak bere burua intsumiso egiterako orduan erabaki arrazonatu bat eduki behar du Animatu!”



Aitor Bengoa

BURUTUTAKO EKINTZAK

Kontakizun askoz betetako bizitza laburra dauka Aretxabaletako Talde Antimilitaristak. Iada hainbat ekintza desberdin burutu dituelako urte eta erdiko epe honetan: intsumiso egunak, manifestazio eta enkarteladak, San Migeletako bazkari intsumitua...

Baina ekintza guzti hauen artetik garrantzitsuena, taldeak udaletxeari aurkeztu zion mozioa dugu, bertan honi ejerzitoaz ez kolaboratzeko eskatzen zioten. Aurkeztutako mozioa onartua izan zen, horrela aurrera pausu nabarmen bat eman zelarik inportantzia haundiko laguntza bat lortuaz. Maiatzaren 25ean esaterako, Kode Penal berri hau salatzen manifestazioa izango da Donostiako Bulebarrean arratsaldeko 6etan ekinda.

Etorkizunera begira, Maiatzaren 24an martxan jarriko den kode penal berriari aurre egiteko asmoa dute, honen inguruan beste zenbait mobi-

“Arazo hau ez da mutilena bakarrik”

lizazio burutuaz.

Jendearen erantzuna antimilitaristen ekintzen aurrean nahiko ona izan da, arazo honen gainean atxabaltar neska-mutilen inplikazio parekatu bat eman delako. Guzti honi buruz, antimilitaristen taldeko neska batek adierazi zuenez, “arazo hau ez da mutilena soilik, gizarte osoarena da inongo sexu desberdintasunik gabe”. Hala ere, mutilak gehiago arduratu beharko lirateke azpimarratu zuen.

Ejertzito eta armen aurka laguntza bezala batzuk aurrera eraman dute Objekzio Fiskala deritzona egiteko ardura, hau da: errentaren aitortpena egiterakoan ejerzitorea bideratutako dirua eliza, SOS Balkanes eta antzeko fundazioetara bidaltzea diru horri beste erabilera onuragarriago batzuk emateko asmoz.

MAIATZAK 24

Egun honetan martxan jarriko da Kode Penal berria intsumisoendako zigor berriak areagotuz. Kartzela zigorretatik aparte, lege berriarekin batera intsumisoei ezgaikuntza pena ezarriko zaie. Honek zera suposatuko luke, 8tik 12 urtera bitartean edozein administrazio publikotan lanik ezin egitea. Hala nola ezingo lukete bakarrik ez eta inongo dirulaguntzarik



Aitor Alkaide

“Onena, gizarte desmilitarizatu batean bizitzea izango litzateke inungo militar eta armamendu barik”

jaso eta diru zigorrak ordaindu beharko lituzkete. Guzti honek heriotz zibila esan gura du intsumisoentzat eta hori dela eta egun horretan udal txeko ikurrina erdi-zut jarriko da. Honez gain, Kodigo Penal berri horrek larrugorritan utziko ditu intsumisoak eta horren adierazgarri Mantaren Hotz Greba egiten ari dira maiatzean zehar.

Lege berriak ezartzean, nabaria da gobernuaren jokaera hau gero eta indar haundiagoa hartzen ari den intsumisoen mugimendua oztopatzeko dela erabilia. Hala ere, lege berriak ez ditu gure herriko mutilak izutzen, gutxinaka-gutxinaka intsu-

misoen kopurua gorantza doa eta. Jadanik 40 izen gehitu dira intsumisoen zerrendetara, hauetatik 15 dira epaituak izan direnak. Ez da marka txarra Aretxabaleta moduko herri batentzat.

Aretxabaletako Talde Antimilitaristak bere ekintzak prestatzeko eta informazio bulego bat irekitzeko lokala eskatzen dio udaletxeari, hau lortuz gero, herriko jendeak guzti honi buruz non informatu izango lukeelako.

Informazio guzti hau hamabostean behin Gipuzkoako KAKITZAT koordinadorekin izandako bileretatik jasotzen dute. Bestalde KEM-MOK taldearekin ere badituzte harremanak.

Gizarte militarizatutik desmilitarizaturainoko etapa honek, bere helmuga lehenengo mailako mendate batean aurkituko du. Lasterketa luze honetan ea behingoz militarrek atzean gelditzen diren eta intsumisoei beren helmuga lortzen duten!



Andoni Arana
Amagoia Lasagabaster

Objekzio Fiskala

Joan den asteko eguakotxean Objekzio Fiskalari buruzko hitzaldia eman zigun Arabako Objekzio Fiskaleko Elkarteko kide den Joxean Buenok. Bertan, militarismoaren aurka lan egitea, mutil gazte intsumisoen ardura ezezik, bakearen kultura eta justizia sozialaren alde gauden guztiona ere badela esan zuen. Honela, Errenta Aitortpena egiteko garaian tramite samur bat eginez, gure zergetatik ejerzitorendako doan parte (%5 inguru) benetan merezi duen proiektu sozial batetara desbideratzeko eskatu zigun atxabaltarroi, hau da, Objekzio Fiskala egitea. Objekzio Fiskala egin edo horretaz informazio gehiago gura duzen guztiok Aretxabaletako Talde Antimilitaristarengana jo dezakezue, eguakotxetan 7etatik aurrera, kultur etxeko bideo-gela ondoko lokalera.



Martutenera egindako martxan

Gorriña baino bizkorrago



Aizkorriko joan-etorria egin zutenak.
Zutik: Joseba Gonzalez, Aitor Atxaga, Luis Mari Otxoa, Juanjo Astondoa.
Behean: J.J. Irure, Fernando Uribesalgo, Alvaro Urreta

Garai desberdinak direla esango du batek baino gehiagok. Eta maiatzaren 11n 7 lagunek Aizkorriera egin zuten joan etorria ezin dela Gorriñak 1931. urtean egin zuenaz konparatu, harek bakarrik egin zuela eta gaur egun moduko preparaziorik ez zegoela. Bakoitzak bere iritzia izango du horren inguruan baina ezingo dena zalantzan jarri aurrekoan 5 ordu eta 20 minututan Aizkorriko joan-

etorria egin zutena da.

Goizeko 6,30etan Luis Mari Otxoa eta Rivera eta 7retan Juanjo Astondoa arrasatearra, Alvaro Urreta, J.J. Irure, Fernando Uribesalgo, Joseba Gonzalez eta Aitor Atxagak udaletxe zaharreko aldaba jo eta aineketera eman zioten.

52 Km zituzten aurrean eta 1.528 metro dituen Aizkorri mendia igotzeko tartean. Ibilbidea ondorengoa: Aretxabaleta-Urkulu-Jaturabe-Arantzazu-Urbixa-Aizkorri-Urbixa-Arantzazu-Jaturabe-Urkulu-Aretxabaleta. Ez zen gero txantxetako proba.

Aizkorri puntan 9,50etan zeuden lehenak eta edurra ere aurkitu zutela esan behar da. Argazki arin batzuk atera eta ostera ere beheko bideari ekin zioten.

Bueltarako nekatuta

Indarra hartzeko barrira energetikoak, txokolata eta ura beharrezkoa izan zituzten gure korrikalariak. "Bestela proba ezingo genuen bukatu" adierazten zuten. Eta Arantzazun txorizo bokadiloa jatera ausartu zenik ere izan zen. Batzuk lasai ibili zirenaren seinale.

Honuzko buelta gogorragoa izan zen. Nekea gero eta nabariagoa baitzen eta aldatz txikienak ere gogorrak.

Herrira heltzen lehenak Alvaro Urreta eta J.J. Irure izan ziren. Andra Mari elizako erlojuak 12,20 minutu markatzen zituenean Durana kalean barrera sartu ziren bertan bildutako lagunengatik txaloartean. Bost minutu beranduago Fernando Uribesalgotik jo zuen udaletxe zaharreko aldaba. Ostean Joseba Gonzalez eta Aitor Atxagak. Ordu bata aurtxotik Juanjo Astondok eta zazpiretarako 20 minutu falta zirenean Luis Mari Otxoa heldu zen. Riverak ezin izan zuen buelta bukatu.

Sasoi ona dutela ezin ukatu eta buelta gogor hori horrelako den-



Ibilbidearen luzera, desnibela eta denborak



MAPFRE

Aseguroak

Errekabarren, 3
Tfnoa: 77 11 76

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA



Mitarte kalea, 17 • ARETXABALETA • Tfnoa: 79 00 00

boran egiten ausartzen denak meritu galanta du. Julen Zuazabeitiak Gorriñaren inguruko kontu zahar hartan esaten zuen moduan, **ohore gure korrikarientzat!**

Herritar guztientzat

Murrukixo Mendi Elkar-teko eta herriko beste per-sona batzuegandik sortutako ideia izan da Gorriñak 1.931. urtean egin zuen proba egi-tearena. Egia esan, kirol ar-loan herrian antolatu den ekintza berri bat da hau eta

agian hemendik aurrera urtero urtero antolatuko dena. Mu-rrukixo Mendi Elkartekoek adierazi digutenez, jende gehiago ere animatu da dato-rreren urtean proba egitera eta jendea animatzen den bitar-tean ez litzateke berriro anto-latzeko arazorik egongo. Batzuk esaten dute popularra bihurtu beharko litzatekeela eta herri guztia animatu, denbora kontuak alde batera utzita, egun osorako itzulia eginez.

Idea polita!



Alvaro Urreta, Fernando Uribealzo eta J.J. Irure Aizkorri puntara igotzen Argazkia: Eugenio Zubia

"...Pedro Aranbarri bere baserriarengatik "Gorriña" gatxi-zenaz ezaguna..."
 "...1931ko udabarri aldera, zek sortuta nahiko ilunpetan gelditzen dela, desafio ikaragarri bat plazaratu zen, bailara osoan ikusmin haundia sortuz: Aizkorriko fan eta etorria, inoren laguntza barik, zazpi ordu baino gutxiagotan egitea. Hauxe izan zen Pedrok bota, eta irabazi zuen apustua..."
 "...Geratutako egunaren goizeko seiretan, ekin zion Pedrok arineketari..."
 "...Ordu baterako oso gutxi falta zela, lekukoek gomutan daukate nola sartu zen "Gorriña" Basabe kantoitik eta jendearen ulu, txilixo eta biba artean egin zuen azken metroen takarraria. Aldabia hiru bider jo zuela irabazlearen seinale".



Pedro Aranbarri "Gorriña" 1.931. urtea

Julen zuazabeitia

Aretxagazeta 1995eko urriak 26-85.zka.

Partehartzaileen esanak:

• Asko entrenatu zenuten joan baino lehenago?

- **Alvaro Urreta:** Bai, apur bat bai. Ibilbidearen zati bat ere egin nuen lehenago.

- **J.J. Irure:** Lau bat hilabete eman ditut prestatzen. Ondo preparatuta joan behar da.

• Zer izan zen gogorrena?

- **Alvaro:** Dana, baina gogorrena bueltan Jaturabetik Urrexolako igoera. Gorunkotan fresko zoaz baina bukaerarako hankek ez dute erantzuten.

- **J.J.:** Azken kilometroak, hankak oso nekatuta nituen eta.

- **Fernando Uribealzo:** Urbiatik Arantzazura bitarteko jeitsiera, oso labana zegoen.

- **Aitor Atxaga:** Gogorrena bueltan Urrexolara igotzea izan zen. Eskuak hotzak izan nituen zati haundi batean.

- **Joseba Gonzalez:** Niri ere bueltan Urrexolara igotzea egin zitzaidan gogorrena, dagoeneko 4 ordu eramaten genituen takarraran.

- **Luis Mari Otxoa:** Aizkorriko harri arteak.

• Zer moduz joan zen proba?

- **J.J.:** Uste nuena baino hobeto bukatu nuen, denbora gehiago egingo nuela uste nuen.

- **Otxoa:** Aizkorri puntara igotzeko nahiko gaizki ibili nintzen, ia mariatu ere egin nintzen. Eta bueltan jausi ere egin nintzen baten.

• Zeozer jan zenuten bidean?

Joseba: Barrita energetikoak eta ura eman zizkiguten. Hau beharrezkoa izan genuen buelta egiteko bestela ezinezkoa da ordu guzti horiek martxan aguantzea.

Otxoa: Nik txokolata eta mermelada eramane nuen jateko.

• Hurrengo egunean zer moduz?

Denek: Nahiko ondo. **Alvarok:** Bueltaren ondorioak igartzen nituen hurrengo egunean.

• Egingo zenuten osterara?

Denek: Bai, baina gertatzeko denbora gehiago izan ezkerro.

• Ez al da astakeria bat buelta hori egitea?

Alvaro: Ondo entrenatuta bueno... baina ez bada entrenatzen bai, astakeria bat da.

• Eta politena zer izan zen?

Alvaro: Bukatzea. Lotsatu egin nintzen Durana kalean horrenbeste jende ikusi nuenean, baina giro ezin hobea sortu zen. Ez nuen uste horrenbeste lagun egongo zenik.

Aitor: Buelta dena izan da polita. Umore onez hartu genuen eta giro ona egon zen-gure artean. Urbixa eta Aizkorriko igoera oso polita izan zen.

Nire ustez hurrengo urtera begira herri mailan antolatu beharko litzateke, Aizkorriaren egun osorako itzulia. Gauza polita izango litzateke.



Pedro Guenetxea II. Memoriala

Pedro Guenetxea II. Memoriala egingo da ekainaren 2an. Memorial hau ospatzeko txirrindulari proba bat egingo da. Karreran, bigarren urteko kadeteek hartuko dute parte. Goizeko 10etan hasiko da Durana kalean eta ondorengo ibilbidea egingo du: Eroski-Epele-Kanpazar-Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza-Aretxabaleta (bariantea)-Eroski-Epele-Kanpazar-Aretxabaleta. Guztira 60 km.

Pedro Guenetxea, txirrindulari munduan lan asko eginiko gizona izan zen eta urtero bere oroimenez memorial bat egingo da.



Goizeko 10etan hasiko da proba Durana kalean

Eskoriatza-Arrasate krossa

Arrasate Atletiko taldeak "Arrasate kirolak Eskoriatza-Arrasate" kross popularra antolatu du datorren ekainaren 2rako. Ibilbidea Eskoriatzan hasi eta Arrasaten bukatuko da eta korrikalariek 8,5 Km egin beharko dituzte danera.

Eguerdiko 12etan emango zaio hasiera lasterketari eta sariak desberdinak izango dira kategorien arabera. Hiru kategoria guztira: absolutoa, junior mailakoa eta beteranoena, bai emakume eta gizonezkoentzat.

Absolutuan, 1go sailkatuari 25.000 pezeta; 2.ari 15.000 pezeta; 3. ari 10.000; 4.ari 6.000; 5.ari 4.000; 6. 7. 8. 9. eta 10. sailkatuei 2.000 pezeta.

Junior mailan, (1977/78/79 urteetan jaiotakoak, NANA eskatuko da), 1go sailkatuari 15.000 pezeta; 2.ari 10.000 pezeta; 3.ari 6.000; 4.ari 4.000 eta 5.ari 2.000 pezeta.

Beteranoetan, (Gizonak 1956. urtetik aurrerakoak eta emakumeak 1961. urtea edo aurrerakoak, NANA eskatuko da), 1go sailkatuari 15.000 pezeta; 2. ari 10.000 pezeta; 3.ari 6.000; 4.ari 4.000 eta 5.ari 2.000 pezeta.



Ekainaren 2an korrituko da Eskoriatza-Arrasate krossa

Partehartzaile guztiek kamiseta bana jasoko dute oroigarritzat eta honez gain 12 kirol material zozketatuko dira.

Apuntatzea, Iturripeko kiroletxean egin daiteke, martizen eta egunetan 6etatik 8etara bitartean edo eta zapatu goizean 10etatik 12ak artean. Bestela, Arrasate kirolak dendan edo eta proba hasi baino ordu erdi lehenago. Prezioa 500 pezetakoa da.

IMANOL JANARI DENDA

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia

Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABAleta

BR Amaia-Berri, S. L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea
Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABAleta

Udaberriarekin batera eguraldia hobetzen doan heinean mendi bizikleta gero eta lagun gehiago ikusten da. Baina askotan beti ibilbide berberak egiten dira eta egia esan gure inguruak ibilbide desberdin asko egiteko aukera eskaintzen du. Hortaz, kirolen tartetxo honetan udaberriari hasi eta udazkenerarte gure inguruan egin daitezkeen irteerak eta euren deskribapen txiki bat irakurri ahal izango duzue. Hori bai, ibilbide hauek mendi bizikletan hasi berri direnentzat zuzentzen dira bereziki, izan ere, asko ibiltzen denak ezagutuko ditu eta seguruenik.



Gure inguruak mendi bizikletan ibiltzeko aukera asko eskaintzen ditu

1. go ibilbidea: Auzorik auzo

Etaparen honetan inguruko hainbat auzotatik pasatuko gara, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateko auzo batzutatik hain zuzen ere: Bolibar, Peñakulo, Mendiola, Arkarazo, Urkulu, Larrino, Bedoña eta Oro.

- **Distantzia:** 21,5 km.
- **Denbora:** 2 ordu- 2,30 bitartean.
- **Etaparen deskribapena:** Etapako zati handi bat asfaltu eta harrizko pista erosoetan zehar egiten da. Hala ere, badaude tarte motz batzuk (Larrinotik Bedoñara eta Orotik Aretxabaletara) lurrezkoak direnak eta eguraldi txarraz nahiko labainkor eta lokaztuak egon daitezkeenak. Aipatzekoak dira Bolibarretik gora eta Larrinotik Bedoñarako bide hasieran aurkituko ditugun aldapak (motzak baina gogorak).
- **Ura:** Etapa honetan ez dago inongo arazorik; iturriak auzo guztietan aurki ditzakegu.
- **Katalogazioa:** * (Erraza)

Fran Migelek Espainiako unibertsitate mailako xake txapelketan 19. postuan bukatu zuen Xakean ona dela erakutsi digu behin eta berriro Fran Migelek. Maiatzean Madrilera joan zen Aretxabaletako Arlutz xake taldeko jokalaria. Espainia mailako unibertsitate arteko xake txapelketa jokatu zen bertan. Euskal Herriko unibertsitateko ordezkari gisa joan zen Fran eta esan beharra dago txukun ibili zela. 191 unibertsitate aurkeztu ziren danera eta Franek 19. postuan bukatu zuen. Hasiera baten aurreneko postuetan ibili bazen ere, azkenengo momentuan partida bat galdu egin zuen, eta 19. postuan gelditu zen. Hala ta be, horrenbeste partehartzaileraren artean postu bikaina lortu zuen.

AMETS TABERNA

Iparagirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta

ARGAZKIAK

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA



Ainhoa Agirreazaldegi
(17 urte)

17 urtetako bertsolari gaztea dugu Ainhoa Agirreazaldegi. Elgetan sortua bada ere Bergaran bizi da gaur egun. Baina gure herrian ere izan du bere eragina, izan ere, Ainhoa, Kurtzebarri eskolako bertso eskolan erakusten aritu baita. Oraindik gaztea bada ere, bertsolaritza munduan bere abilezia erakutsi du. Gaur egun, bertsotan irakasten eta ikasten ere jarraitzen du.

IRIARTE

Umeen denda



Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 10 96

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

**EXPRESS
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 77 13 57

Sebastian de la Fuente

Elena

AUTOZERBITZUA

Murubide z/g ☎ 79 91 76
ARETXABALETA

**BENGOA
URDAITEGIA**

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79

• Noiztik bertsolaritzan?

Ba... 8, 9 urtetatik. Bergarara bizitzera joan ginenean, bertso eskola zegoela jakin nuen eta bertan sartu nintzen.

• Lehen Aretxabaletan ere ibili izan zara bertso eskolan erakusten?

Bai, lehen Kurtzebarri eskolara etortzen nintzen bertso eskolara. Baina poliki-poliki desagertzen joan dira taldeak. Aurten ez da talderik sortu.

• Zer iritzi duzu bertso txapelketen inguruan?

Ondo daude, batez ere, antolatzen diren giroagatik. Bertso asko ez dira izaten eta hemen irtengo den txapelduna ez da inondik inora txapelduna izango. Partaidetza bultzatzen da.

• Neska bakarrenetarikoa izango zara?

Bueno... Nik neuk ez dut bizi bakardade hori eta ezta gure belaunaldiak ere. Madalen Lujanbiok, Iratxe Ibarrek eta Estitxu Arozenak bide gehiago ireki behar izan dituzte. Baina gaur egun nesken partaidetza nabaria da eta horren lekuko dira eskolarteko bertso txapelketak. Kalitate aldetik lortu da berdintasuna eta orain kantitate aldetik ikusi egin beharko da.

• Noiztik eskolarteko txapelketetan parte hartzen?

Txiki-txikitatik hasi nintzen parte hartzen eta bestelako txapelketetan ere parte hartu izan dut.

• Nola joan dira?

Ba... txapel banaka batzuk badaude gure etxean baina garrantzitsuena saio on bat egitea da.

• Anekdotarik izango duzu kontatzeko?

Umetan, bertso bat bota nuen eta lehenengo hiru oinak onena, onena eta onena izan ziren. Eta laugarrena esaterakoan pentsatu nuen, kontxo oin osterako onena esaten badut topo egingo dut eta bikainena esan nuen. Ni orduan ez nintzen konturatu ere egin. Gainera, gaia Perurena kirolariaren ingurukoa zen.

• Beti bururatzen zaizu zer esan?

Ez, beti ez baina orduan irtenbide bat bilatzen duzu. Ixilik behintzat ez gara gelditzen, horretarako landuta daukagu burua.

Maiatzaren 10ean, Zaraia zineman egin zen XVI. Gipuzkoako eskolarteko txapelketan parte hartu zuen Ainhoak eta horra hor gaia jarrita bota zuen bertsoa.

Gaia: Gurasoen gelan ispilu haundi bat dago eta ispilu hartan zure buruari biluzik begira zaudela harrapatu zaitu amak.

Bertsoa:

Pasa den honek grazi haundirik ez dizu egin badakit, zure alaba era honetan ez duzu ikusten pozik. Begirakunan nabari duzu zure ahots hortan ezik nire gorputza aztertu nahian ikusi nauzu biluzik jakizu lotsaz ez naiz sentitzen askoz askeago baizik.

Agurreko bertsoa:

Bertso onak kantatutzea beti ez degunez lortzen, urtetan segi izaten degu berria zerbait sortzen. Lehen ikusi det beasaingar bat zertxobait kezkatzen txapelketa da aukera soil bat hemen ez da ezer galtzen.



Don Angel Garmendia garai bateko herriko abadea ez zen geldi egoteko gizona, gustoko zuen elizkizun desberdinak antolatzea. Bere garaikoa dugu goiko argazkia. Maiatzeko domeketan Ama Birginari lore eskaintza egiten zitzaion eta egun bereziena maiatzeko azken eguna izaten zen. Ama Birgina altarean jartzen zen azken agurra egiteko. Bere inguruan argazkiko aingerutxo eta Ama Birginak batzen ziren. Altaretik larrosa petaloak jaurtitzen zituzten eta kantu desberdinak abesten, hoiien artean, "Agur Jesusen Ama", "Agur, agur, agur Maria" edo eta ondorengo hau: "El 13 de mayo/La Virgen María/bajo de los cielos/a coro de Iria"

Jende asko biltzen zuen elizkizun honek eta gaur egun ere maiatzeko azken egunean jende gehiago nabaritzen da elizan.

Baina Don Angel jubilatuz zenean elizkizun berezi hau egiteari utzi zitzaion.

Argazkia lehenagoko konbentu bidean aterata dago, 1967. urte inguruan. Neska gaztetxoak aingeru jantzita argertzen zaizkigu eta eureteko bi Ama Birgina. Argazkikoak ezkerretik eskumara: **Mari Karmen Pierruges, Lurdes Herrasti, Begoña Intxauspe, Lurdes Etxeberria, Mari Lurdes Zubizarreta, Arantxa Etxeberria, Mari Karmen Gutierrez, Pepi Rosado, Iruñe Lacalle, Miren Eraña, Nati Herrasti, Gurutze Arrese.**



ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABAETA • TFNOA.: 79 32 34



HAIZEA AKEITEGIA

Mitarte kalea, Z/G
Tfnoa: 79 85 57

Non ete da nire gurdia?



M.J. Aretxaga

Ez zaitezte larritu, Manolo Escobarren abestia kantatzera ez noa eta. Baina antzerako galdera egiten dute Loramendi Euskara taldeko kideek, hauek non ete da gure **kartela** esaten dute. Izen be, orain aste pare bat Loramendikoek, Portasolen, herri irteeran zuten kartela desagertu egin zen eta inork ez du haren barri. Ea nork argitzen duen misterioa.

Bitxikeria honetaz aparte beste batzuz ere enteratu naiz. Aurten Eusko Jaurlaritzak Diputazioarekin batera antolatu duen VIII. Belar-silo txapelketan, Arientzako **Juan Jesus Anduagak** irabazi zuen Bola-silotan. Bapo bazkalduko dute bere behiek.

Bestalde, Argentinan misionero dagoen **Seberiano Ayastuy** atxabaltar marianistak "Premio nacional de solidaridad" jaso du bere lana eta borondateagatik. Zorionak!

Jon Sarasuari ere zorionak eman beharrean nago. Joan den astean kazetaritzan Cum Laudem-ekin doktoratu

zen. Aurkeztu zuen tesia euskarazko kazetaritzari buruzkoa izan zen.

Pasa den astebukaeran Euskararen Eguna eta Otxalazelai Eguna zela eta hainbat ekintza eta giro alaiak izan genuen gure kaleetan. Zapatuan, Aratz taldeak eta UDAK antolatutako jokuetan kanpotar bat izan zen irabazle, **Aitor**, La Pueblako ikastolako irakaslea hain zuzen ere, ondarrutarra berau.

Bestalde Tril emakume taldeak antolatutako Bolo txapelketan **Mirian Priego** izan zen lehena, **Rosa del Agila 2.** eta **3.** **Amaia Antero** donostiarra. Emakumeak ez ziren atzera begira egon eta guztira 42 emakumek parte hartu zuten. Erraz esaten da.

Domeka goizean gehienok "bixamona" gogorarekin geunden artean, beste batzuk animoso hasi zuten eguna. **Ramon Jausorok**, Arrasate-Oñati lasterketa korritu zuen eta baita irabazi ere.

Arratsaldean, Otxalazelain bazkal osteko momentu goxoan herriko txiste kontalari gazteak ekin zioten lanari. Txiste danak ez ziren onak izan baina jendeak barre gustora egin zuen batzuen okurrentziekin. Irabazlea, **Gorka Uriarte** izan zen eta **2.** eta **3.** **Mikel Iturri** eta **Bittor Vela** gelditu ziren. Sari moduan Kilometrotako postuko kamisetak jaso zituzten.

Bueno, lasai bukatzen dut eta ea norbaitek pistaren bat ematen duen desagertutako kartelaren inguruan.

A R E T X A Z O K A

LANA

- Matematikak emango lituzkeen norbait behar da. (2. REM). Deitu 79 30 84 telefonora. Arratsaldez hobe.

- Emakume euskalduna prest ordu batzuk lan egiteko. Tfnoa: 79 43 63

- Umeak edo zaharrak zainduko nituzke edo eta ordu batzutarako lanak egingo nituzke. Tfnoa: 77 02 13

- Idazkaritzan diplomatuak lanak ordenagailuz pasatuko lituzke. Tfnoa: 79 31 47.

- Euskeraz, ingelesez, gaztelaz eta beste hizkuntza batzuetan ipuin pertsonalizatuak idazten dira. Tfnoa: 79 47 54.

ETXEBIZITZA

- Apartamentu bat salgai dago Eskoriatzan. Telefonoa: 74 01 17

- Aretxabaletan pisu bat alokatu gura nuke. Telefonoa: 77 04 58 (Erantzungailuak erantzungo du)

- Pisu salgai dago Durana kaleko 33. zenbakian (3. solairua eskuma). Telefonoa 79 64 93. (Eguerdian eta arratsaldean).

- Laredon uztailean apartamentu bat alokagai dago. Telefonoa: 79 52 80.

- 82 m²-ko lokala salgai. Hiru horma kaleruntza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi 10ean dago. Telefonoa: 79 01 17

- Laredon pisua alokagai dago. Tfnoa: 79 31 47.

- 3 neska euskaldunek pertsona bat behar dute Madrilan pisua osatzeko, ekainetik aurrera. Tfnoa: (91) 4043838

- Pisu bat salgai dago. 83 m² ditu eta altzariz jantzia. Solohaundi kaleko 25. zenbakian. (3. pisua eskuma). Telefonoa: 79 45 31.

- Garaje bat alokagai dago. Santa Kurtz kaleko 24. zenbakian. Lurrazpiko lehenengo pisuan. Telefonoa: 79 05 28

Orrialde honetako iragarkiak dohainik dira. Testua idatzi eta bidali Kultur etxean dagoen buzoira edo eta deitu 79 01 05 telefonora.



Mikel Mendizabal

“Bertsoak botatzerakoan ixilik behintzat ez naiz geldituko”



Itsasondo, Goierriko bihotzean dagoen herri txiki batekoa dugu Mikel Mendizabal bertsolari ezaguna. Ikastolen elkartearen egiten du lan, Donostian, eta bertsolarietako koordinatzailea da.

• Nolatan bertsolari?

14-15 urte nituela etxean bertso liburu bat aurkitu nuen. Liburu hura irakurri nuen eta bertako ariketak kuriosoa iruditu zitzaizkidan. Gero lagun artean proba batzuk egiten genituen eta txapelketetan aurkezten hasi nintzen.

• Familialatik ez datorkizko orduan?

Ez, nik uste dut gaurko gazteetan ere ez dagoela familiako erentzia hori.

• Topea jo du bertsolarietaz?

Momentu honetan garbi dago olatua jeitsi egin dela. Duela 4-5 urte boom haundiagoa zuen bertsolarietaz. Baina normala da. Lehengo boom hura ez zen normala.

• Inoiz gelditu zara zuri bertsoak botatzerakoan?

Bai, hori bertsolari guztioi gertatzen zaigu baina kasu horietarako badiugu taktika eta tranpa batzuk disimulatzen. Ixilki behintzat ez naiz geldituko.

• Konkistatu duzu neskarik bertso bidez?

Zuzen-zuzenean ez dakit. Baina jende asko ezagutzen duzu eta konkistak horren ondorio dira.

• Zein herrietako jaiak dituzu gogoko?

Asko. Nafarroako herri txikietako jaiak gustatzen zaizkit, Erasun, Ezkurra, Ituren. Jendea erabat murgiltzen da jaietan egun osoan zehar.

• Gaurkoan bizi ala bihurtzeko ere pentsatu?

Gaur bizitzea gustatzen zait baina aurrera ere begiratuz.

• Bizio bat...

Asko eta ondo jatea gustatzen zait.

• Gustoko menu bat?

Pasta zalea naiz, arroza, espagetiak... Baina danetik jaten dut.

• Ezagutu duzun pertsona aipagarri bat?

Jose Migel Barandiaran.

• Zein kirol praktikatu eta zein ikusi?

Jokatu pelotan, mendia ere gustatzen zait. Eta ikusteko pelota eta txirrindua ere bai.

• Gustoko abesti bat?

Xabier Letek Xalbadorri atera zion kanta. “Nun zaude ur epeleko artzaia”.

• Entzutea ala berba egitea gurago?

Belarria ona daukat, eta ezatarria bai hizketan eta bai kantatzen gustatuko litzaidake hobea izatea.

• Irratia, egunkaria ala telebista gurago?

Goizean jaiki eta lehenengo gauza irratia. Egunkaria ere bai eta iluntze aldera telebista, zeozer interesgarria badago.



SENTIDO Y SENSIBILIDAD (EEBB, 1995)

Jane Austen ingeles idazleak 1.975. urtean idatzi zuen lehen nobelan oinarritzen da pelikula honen istorioa. Liburu hau abiapuntutzat harturik, Ang Leek umorez bustitako melodrama eskeintzen du, komedia erromantikotik gertuago, XIX. mendeko Ingalaterrako gizartearen azterketatik baino.

Dashwood anderea eta bere hiru alabak oso egoera ekonomiko txarrean gelditu dira familia burua hil eta gero. Senarraren ondasuna lehen ezkontzan izandako seme baten eskuetara joango da.

Elinor (Emma Thompson) eta Marianne (Kate Winslet), alaba nagusien bihotzetan amodioaren sua piztuko da, baina familiak eta gizarteak hamaika traba ipiniko dizkie maitasuna lortzeko bide astun horretan. Elinorrek eta Marianne oso jarrera desberdinak agertuko dituzte amodioa eta arau sozialei aurre egiteko orduan. Batak, zentzunaren bidetik jokatu du; bestea, sentimenduetan oinarrituko da. Baina maitasuna heltzen denean biek bihotzak agindutakoa egiten dute.

“Sentido y sensibilidad” ikuslea hunkitu egiten duen pelikula da. Istorio honen atzean zuzendari on bat eta ondo lotutako istorio bat daude, Elinor (Emma Thompson) eta Marianne (Kate Winslet), Dashwood ahizpek bizitakoa hain zuzen ere.

Jatorrizko izena: “Sense and sensibility”

Zuzendaria: Ang Lee

Aktoreak: Emma Thompson (Elinor Dashwood), Alan Rickman (Brandon koronela), Kate Winslet (Marianne Dashwood), Hugh Grant (Edward Rerrars), James Fleet (John Dashwood), Harriet Walker (Fanny Dashwood), Gemma Jones (Dashwood anderea)

EGUZKIGRAF
inprimategia

Industrialdea 1-0-4
Etxeak: 791844
Fax: 792941

BERGARA



Maiatzak 24, 28

PENTEKOSTES JAIK

Maiatzak 30-Ekainak 2

XAKE TALDEAREN XXV. URTEURRENEKO ERAKUSKETA

Xake taldearen XXV. urteurreneko erakusketa.

Pintura, keramika, argazki, zigilu, dirua, minikonputagailuak, idazki hautatuak eta historiko balioa duten xake jokuak. Kultur etxean.

Ekainak 1 zapatua

XAKE TALDEAREN XXV. URTEURRENA

Goizeko 10etan adiskidetasuneko lehiaketa.

Herriko plazan, Labegaraietako kiroldegia, Migel Altuna Institutuan, e.a. **Eta baita joku azkarreko lehiaketa irekia.**

Arratsaldeko 3,30etan **XXV. Bergara Hiria saria. Finalerdia.**

KANTALDIA

XIBEROKO KANTOREA Novedades Aretoan gaueko 10,30etan.


Ekainak 2 domeka

XAKE TALDEAREN XXV. URTEURRENA

Goizeko 9,30etan **XXV. Bergara Hiria saria. Finala.**

Joku azkarrean Euskadiko Txapelketarako klasifikazio froga.

ARRASATE



Maiatzak 25

DANTZA IKUSKIZUNA

Cia. Mar Gomez-en **"LA NOSTALGIA DEL PEPINO"**

Amaitz Antzokian arratsaldeko 8etan.

Maiatzak 30 eguna

ZINEA

"Hombre mirando al sudeste" Amaitz Antzokian gaueko 9,30etan.

OÑATI



Maiatzak 26

KANTALDIA

Iruñako katedraleko musika kapera. Arratsaldeko 7,30etan Santa Ana antzokian.

Ekainak 1 zapatua

KONTZERTUA

Oñatiko Martinola musika taldearen eskutik. Gaueko 10,30etan Santa Ana Antzokian.



ARGI-PLASTIC
Leihoak egiten dira
Zigarrola, 1 8. pabiloia
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30



BASTER-ALDE JATETXEA
SASOIKO JAKIAK
GIRO ONENEAN
Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETA

ZARAIA TABERNA
Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan
MANTEKA ANAIK

*Okindegia - Gazategia
Panaderia - Pasteleria*



Aretxabaleta
Militaria, 1 - Tfno. 77 00 81
Aretxabaleta
Obrador Propio

MENDIOLA ERRETEGIA
Bazkari eta afariak
Astelehenetan itxita
Tfnoa: 71 43 45
ESKORIATZA



Maiatzak 24 eguakotxa

ZINEA

“SENTIDO Y SENSIBILIDAD” pelikula
Zaraia zineman gaueko 10,15etan.


Maiatzak 25 zapatua

**KUKUBILTFOREN TXOTXONGILO
EMANALDIA**

Arratsaldeko 4,30etan Zaraia
zineman. Kukubiltxo taldekoek
“BEHIN BAZEN” antzezlan berria
aurkeztuko dute. Sarrera 300 pezeta,
Super 1eko bazkide izan ezker 200
pezeta.

ZINEA

“SENTIDO Y SENSIBILIDAD” pelikula
Zaraia zineman gaueko 10,15etan.



BEHIN BAZEN

“Behin bazen” Kukubiltxo taldearen
txotxongilo antzezlan berria. Super
1eko bazkide izanda sarrera 200 pezeta,
gainontze koentzat 300 pezeta.

Maiatzak 26 domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Elgoibar-Bide Barri-
Azkoitia-Zumarraga-Udana-Oñati-
Aretxabaleta. 94 km.

IBILALDIA

TRAPAGARAN herrian. Autobusen
inguruko informazioa Loramendiko
lokalean. 77 09 70 telefonoan.

ZINEA

“SENTIDO Y SENSIBILIDAD” pelikula
Zaraia zineman arratsaldeko
7,30etan eta gaueko 10,15etan.

Maiatzak 27 astelehena

ZINEA

“SENTIDO Y SENSIBILIDAD” pelikula
Zaraia zineman gaueko 10,15etan.

Ekainak 2 domeka

PEDRO GUENETXEA MEMORIALA

Goizeko 10etan hasiko da Durana
kalean. 2. urteko kadeteek korrituko
dute.

ESKORIATZA-ARRASATE KROSSA

Eguerdiko 12etan hasiko da
Eskoriatzan.

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Landa-Arroiabe-
Durana-Gasteiz-Elorriaga-Alegria-
Gereñu-Agurain-HEREDIA-Ozaeta-
Aretxabaleta. 98 Km.

Hiruaitz Aretxabaletako motor
zaleen elkarteak ateratako errifen
zenbaki saritua 139 da eta irabazlea
Iosu Mendizabal oñatiarra izan da.



**BEHARREZKO
TELEFONOAK**

Aretxabaleta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 79 10 52
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkartea 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murrukixo M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99
- Ludoteka 79 05 81
- Musika Eskola 79 36 50
- Ortzadar 79 01 84
- Aretxagazeta 79 01 05

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 77 10 43
- SOS Deiak 088

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETAKO




Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28
ARETXABALETAKO

J.J

ITURGINTZA
Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

Zorionak Kangchenjunga espedizioari!



MUGARRI rekin edonora



Galaxy

**Amets
egiteko
kotxea**

MUGARRI 

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE • Tfnoa: 79 07 44 • Faxe: 79 62 54